LOTAZILLA
27
EGUBAZTENA

BILBAO 1933

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua... ... 6,00 Irko. Iru ilez
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "

BELDAYEN ITUNDUBA

XXI urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.º | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.569 zenbakija

Egunekua

Euzkel-ixena

Gure adizkidia ta "Euzko" asterokuaren artezkarija dan Ziarsolo'taŕ Imanol (Abeletxe) eta Trojaola'taŕ Laure senaŕ-emaste abeŕtzale zintzuak, semetxu baŕi bat sendiratu dabe, ta euren euzko-sendija euzko-gudaritxu baŕi bategaz ugarituta imiñi.

Josu Umetxuba'ren jayotzeagaz batera ludiratu yakon azkenengo semetxu oni, "Abeletxe" adizkidiak, bera dan lako abeŕtzale batek besterik egin be ezieukian-eta, ugutzan Josu euzkel-ixen begikua ezaŕi dautsa.

Jayopaŕitxubaren ama ondo auŕkitzen dala diñoskube; eta semia be, gaŕaxi egiŕeko estaŕija azke daukala, bai, ta aldija eltzen yakanian, ¡Gora Euzkadi! didaŕ gogotsu egiŕeko lakua ixango dala...

Zorijonak, ba, "Abeletxe", olako euzkel-ixendun semetxuben gurasuak zorungaŕijak dira-ta.

Euzko-Gastedija'n

Bilbao'ko Euzko-Gastedija'n, igandian, bazkintza artezkari baŕija autetsi zan.

Lendakaritzat Taramona'taŕ Imanol autetsi zan. Eta ordekotzat, Aŕegi'taŕ Pantzeska.

Au, igazi dan igandeaŕte lendakari ixana da. ta bere lendakari-aldija ondo be ondo bete ixan daula autoŕtu biaŕian auŕkitzen gara.

Taramona'taŕ Imanol orain lendakaritzaratu dan abeŕtzale ezagun onek be, bere soŕbalda-gane aŕtu daun egin biaŕ aztun au. ondo beteko dabela uste dogu, abeŕtzale onen euzko-gogua Euzkadi-aldezko arazuetan bein baño saŕijago begi-auŕe ageŕtu yakuna da-ta.

Gastedi onetako idazkari baŕija be, igazi dan igandian autetsi zan. Zeregin arazotsu onetarako, Goikoetxea'taŕ Nestor ("Urdiola") adizkidia ta idazle azkaŕa autetsi zan.

"Urdiola" zintzua, ospetsuba baxen apala dan idazle yayua, amai bako langilia da, ta bai biaŕ be.

Len, "Euzkerea" aldizkingi edeŕeko aŕtezkaritzeagaz eta abaŕ, okotzeraño lanpetuta egon ixan ba-da, orain, lenguen geigaŕi lepaldu-erazo dautsen idazkaritza arazo baŕi onegaz, buruko ulietaraño arazopetuta imiñi dabe gixagaxo aundija.

Lana egin biaŕ dan lekurako, lana egingo dabena bilatu be egin oi-da. Eta "Urdiola" zintzua, be, langile-langilia dalako, bilatu-egiŕen dabe. ta bai idoro be.

Azkenengo autetsi dan bazkintza artezkari baŕi onek be orain-aŕte ixan diranen atzian. abeŕi-aldezko lan edeŕak baxen onurakoŕak egingo dabezanaren itxaropen osua dogu.

Alantxe ixan dedila, ba.

Macia il da

Catalunya'ko Generalitat'eko lenengo lendakari abeŕtzalia ixan zan Macia'taŕ Pantzeska il da. (G. B.).

Macia, bere bixitzan, masoya ixan zala, bein baño saŕijago entzun ixan doguna da.

Ilgo zan baño egun batzu aureragoko izpaŕak iñoskubenez, baña, autoŕtu ta Jaunaŕtu be egin euzan Macia'k, eta Kistaŕ zintzuari yaokan eran uskuŕtza-lagiz ilŕeko geŕtau.

Abeŕtzale lez, Macia, ospetsuba be ospetsuba ixan zan. Eta kistaŕari yaokan aldetik txaŕa ixan danik ezin esan geinke, ilŕamuban emon ixan daun erakutsija, betako Kistaŕ zintzuarena ixan dalako.

Macia ilŕiagaz, Catalunya'k, abeŕtzale aundi bat galdu dau. Eta Euzkadi'k, adizkide zintzo bat. Ori dala-ta, Euzkadi, baltzez jantziŕa dago.

Catalunataŕ adizkide onai euren lendakarija ilŕiagaz ixan daben samin-aldijan lagun gayakeze. Eta zuk irakuŕle, otoi bat, aren, Macia ixan zanaren gogo-aldez. Govan bego.

Egutegi Bizkaitarra

Oŕmatik bera ezkegiŕa auŕkitzen dan egutegi zaŕa, ija amaŕu yaku-ta, baŕijari begira asiŕorduba dogula uste dogu.

Ilŕen danaren utsunia betetako, beste bat jayo oi-da.

"Egutegi Bizkaŕaŕa,,'gaz be orixe jazo da, ba: zaŕa azken-erijotzara uŕeratuten asi daneko, oñordekua jayotia.

Ilŕamuban auŕkitzen dan zaŕa txukuna ta edeslari edeŕa ixan ba-zan, orain jayo dan baŕi au auŕekuaren jaŕaitzale jatoŕa da. Beraz txukuna ta edestijak edeŕto edestuten dakijana.

¿Erosi dozu ala, irakuŕle?

Erosi eztaunak bape barik geratutia gura ezpa-dau, oŕmarako biaŕ dauna erosteko bizkoŕ ibili biaŕko daust, entzun dogunez ijekirik geyenak, onezkero, salduta ixan biaŕ dabez-eta.

Egutegi onen saneuŕija be, gero, gauzea arin saltzeko lakoxia da, bakotxaren saneuŕija sei txakuŕ aundi baño ezta-ta.

Saltzalientzat ixanezkero, baŕiz, sei baño be merkiago, euneko amaŕ eratziŕa saltzaliei emoten yake-ta.

¿Ondiño be, zuk, irakuŕle, eztozula erosi...?

URIBIŔAŔTE'TAŔ IBON.

Sabin - Gogua

III

Gixonok, ba, geurez ezer ezkara. Geure Irakaslia'k sakon uleŕtu eban egi au. Bere Oldozkunetako idaztijak diñoazanak euzkeraldutia naikua da:

276.—Eskaŕtxaŕkerija benetan, irasi ta beŕerosi gaŕuzana otseindu gura ez ixatia: dogun on gustijaren zordun gayakozana otseindu gura ez ixatia; bere maŕasun osua, amaibako maŕasuna emon dauskun Jauna otseindu gura ez ixatia; betikotasun zorijontsuban bere zorijona eskintzen dauskun Jauna otseindu gura ez ixatia.

Bera'k betikotasunian zabartu gadixan, geuk Jaungoikua ludijon bixi garan urte labuŕetan zabartutia... zein zorakerija!

277.—Gixonarentzat gauza gaŕantsitsu bat baño ezta: bere gogua zeruratzia.

278.—Gixona, ba, ludi onetan alik-eta elbururagotu, osuago ixango da; aulan adimenaren osotasuna bere elburura daroyen egijak argi ta osoro ezagutzian dago; eta naimenaren osotasuna ezaguturiko biaŕkunak osoro betetutian.

280.—Erijotza-ostian ezetarako eztira ez buru-argiŕasuna, ez ludijon lorturiko ezagubidiak; norberaren biaŕkunen ezagubidiak baño ez dira gauz; Jaungoiko-bilduŕa, iñuan Jakintsuba'k, jakiŕurijaren oñaŕija da; eta Bere Naimena'ren ezagutze osua, geŕu gegike, bere amaya da.

211.—Neuk beintzat, ene adizkidia, zeuretzat eta niretzat eta neure geide gustientzat, Kisto'ren bakia baño besterik ezin opa dok. Jel goiburuban euzkotaŕontzat batzen dan bakia."

Ene irakuŕle euzkotaŕa: Sabin geure Irakaslia'ren Jaun-zaletasuna ezpaiz-lañoz ilunduten daben euzkotaŕak dira gauŕtxe bere. Eta ezin uleŕtu dot euzkotaŕon zintzotasuna. Itsukeri negaŕgaŕija da. Zabalduko al dabez len-bait-len euren begi lañotubak!

Jaungoiko barik, ba, ene euzkotaŕa, gixon bakotxa ezer ezkara; Bera barik ezer ezin dogu; gauzarik txikaŕena asi, arnasa aŕtu, entzun ikusi ta gagozan tokijan egoteko be bere laguntasuna biaŕ dogu. Bera maŕe ez ixatia, ba, zorakerija, zorakerijetan be, zoruena, da.

Gixonok Jaungoiko barik ezer ez ba-gara, abeŕi ta lateŕijak be ezer ez dira. Berau zala-ta, Jel-alderdijaren oñaŕitzat geure Irasle, geure Beŕerosle, Geure Jaungoiko bakaŕa ezaŕi eban Sabin geure Irakaslia'k.

MATE.
E. A. B.

Deunen bixitza

Yon Deuna, Beldu-Goizpargillea

Jon Deuna, Josu-Kisto'en ikasle kutuna, Zebedai eta Salome'n seme izan zan, eta Goizparkitik ataraten danez, sendi onekoa. Ara Kisto'ren ikasle zelan egin zan. Josu, ziltzaldiak izan zituan mendia itxi ondoren, Jon Ugutzalea, ebilen Jordan ibai ertzetik igaro zan. Jon Ugutzaleak ikusi ebanean, biotz, biotz aŕituaz esan eban: "Ara Jaungoikua'ren Bildotsa". Au entzunaz batera, berari gogotsuen jaŕaitu eutsen ikasle bik, Ugutzalea'gandik aldendu ziran, Josu'ri jaŕaitzeko.

Josu'k itandu eutsen: —"Zer nai dozue? Eta eurak bilduŕez lez erantzun eutsoen: —Rabbi, Irakasle, non bizi zara? —Eta Josu'k erantzun eutsen: —Etoŕi ta ikusi egizue. Eta joan eta beragaz egun gustia igaro eben. Ikasle biok Jon eta Ander izan ziran. Jon'ek orduan ogei bat urte izango zituan. Ikertaldi onetan ikusi eben, Josu-Kisto gizadiaren Gaizkatzalea zala eta euren biotz baŕuan egunerik-egunera geituez joyan maitasun samuŕa sortu yaken. Josu'ri, Galilea'ra jaŕaitu eutson, Kana'eztegun egon zan, eta Kaparnaum eta Jerosolym'era Beragaz Joan zan.

Bere anai Jagoba'ren antzera izakeraz sutsua izan zan, eta Josu'ren aldez lenengotan, gogorkeri eta gaŕaztasuna agertu ebelako, Josu'k agiraka egin eutson. Josu'k aldi atan, Boanarges, "trumoyaren seme" izena ezaŕi eutson, biotz bizi ta sutsua txiñistaren antzera agertu ebelako. Au Samaria'n gertatu zan. Andik bidez yoyala Irakaslearentzat ostatua eskatu eben. Baña ez eutsoen emon gura, Jerosolym'era yoyalako. Orduan Jon eta Jagoba'k, Josu'gana zuzendu ta esan eutsoen: "Jauna, gura dozu, goitik sua jatsi ta kiskaldu daizela, eskatu daigun? Baña Josu'k eurokana biurturik agiraka egin eutsen. Aŕezkero, obendarientzat oso samuŕ eta eŕukitsu agertu zan. Iñoz bere andinaya be agertu eban. Judaŕak, Mesias'en etoŕeragaz euren bakaldeŕiaren baŕizkundea itxaroten eben. Eretxi okeŕ au unetaraño saŕtuta euken, eta ez da aŕitzekoa, Betsaida, Galilea'ko semeok, eretxi oŕetakoak izatea. Eta alan egun baten, amaren bitaŕtez Josu'ri eskatu eutsoen, bere aintza eguna eltzen zanean, bata eskuman eta bestea eskeŕean ipinteko. Josu'k agertu eutsen, aintza, neke bidez irabazten zala, eta itandu eutsen: "Nik edango dodan ontzia edan al izango dozue". Eta benetan biotz zabalaz erantzun eutsoen: "Bai edan al dogu". Josu'k bere ikasle maiteari eutson maitasun berezia batez be bizitzaren azken aldian agertu eutson. Iñoz baño samuŕago agertu yakon. Azken-Aparia egiten ala berak diñoskun lez, "ikasleetatik Josu'k maite ebana, bere bular-gain [illegible] da egoan". Onetan, Kepa'k kiñu egin tson, saltzalea nor zan, Irakasleari [illegible] duteko. Eta Josu'k esan be bai. Josu-[illegible] to'ren Nekaldi asieran, enparau ikasleak iges egin eban, baña laster bere [illegible] nak Josu'ren ondoren eroan eban eta [illegible] bario'ko mendian an agertzen da. [illegible] Miren eta emakume deunen aŕtean, [illegible] -Kisto'ren Berbizte osteko agerkunde-[illegible] ziñaldari izan zan.

Domitianus'en aldian, Efoma'ra [illegible] eben, eta orio irekiñetan sartu eben, [illegible] alatzez bizirik urten ebela ikusirik, Pat-mos'eko ugartera bialdu eben. Nerva'ren aldiko jasarpena amaitu zanean, bere Epeso'ra biurtu zan. Patmos'en, "Apo-lipsis" izendun agirietako idazti [illegible] idatzi eban. Lenago idatzi eban, Aintza Gotzañen eskaŕiz Zerinton'en aurka Goiz-parki sakon-sakona. Goizparki onetan [illegible] tzuten dautse, Ebionita'ri, be, Kisto-ren'en auŕetik ez zala izan esaten [illegible] eta. Oŕez gañera, beste iru Idazki [illegible] argitaldu zituan. Idazti oneitan maita-[illegible] da geyen azaltzen dabena. Eta [illegible] bikain oneri bizitza gustian ekin [illegible] Gai onetzaz Jeronima Deunak [illegible] Epeso'ko itzaldi gustietan bet gai [illegible] bilten ebala, eta bere ikasle ta [illegible] gogoit egiñda, bein baten itandu [illegible] —Irakasle, Zer dala-ta beti maita-[illegible] tzaz itz-egiten dauskuzu? —Eta Jon [illegible] nak berari zegokion erantzuna emon [illegible] tsen: Orixe Jauna'ren agindua dala [illegible] bete ezkero naikoa da".

An bere beldu lanari ekiñaz, Asi-[illegible] Eleiza gustiak irasi zituan, eta [illegible] zaŕen-zaŕez, Trajanus'en aldian, Josu-[illegible] to'ren Eriotzatik irurogeta [illegible] urtean il zan. Bere ilobia laster [illegible] egin zan, eta bertan "Apostoliko[illegible]" txon eleiza iragi eben. Gauŕ [illegible] Epeso'n tokian gagoan eŕiari, "Un-[illegible] lari Deuna'ren" izena damotse.

Garbitasun bikain aŕen, Josu-Ki[sto'k] bere kutun izan eban. Beldua'ren [illegible] izpaŕ oneik, geyanak beintzat, Goiz-[parki]tik atarakoak dira, enparauak lenengo gizaldietako Eleiz - Gurasoen idazkie[tatik] atarakoak. Bere irakatsi goitaŕak [illegible] -betikoak dira, baña batez be gaur [illegible] nean, kistaŕ - maitasunari dagoki[on] ondo beteko ba'lira beste anaita-[illegible] gentzarik izango litzake katolikotasu-[illegible] tean...

MITAR[illegible]

Abertzaliak Logroño'n

EUZKO-GASTEDIJA.—Euzkadi'n ezezik, atzeŕiyan ere, ez-dakusguz lo, ez geldi, euzko-abeŕtzaliak. Nun-nai ageŕ-dagite beren biyotzetan bero-berorik gordetzen duten abeŕi-miña, eta Abeŕi'tik at auŕkitzen diran euzko-abeŕtzalien aŕtian nabaitzen dan abeŕi-min ori, ba'dirudi beŕukoyagua dala, oraindik, Euzkadi'n bertan, Abeŕi-baŕuan auŕkitzen diran abeŕtzaliena baño, ere. Ama'gandik uŕuti auŕkiŕu oi-dan semeak obetuago esagutu izan bai-du, etxekuak baño, Ama'ren biaŕ izana; eta auxe bera gertatutzen zaye Abeŕi'tik at nai-kaltez auŕkitzen diran abeŕtzalieri ere. Eta Abeŕiya'ren zori-txaŕ eta zori-onak, nekaldiyak eta atsegiñaldiyak; batzuetan atsekabez eta bestietan atsegiñez, abeŕi-maiŕasunaz kutsaturik gozoro damaizkite beren gogo-biyotz abeŕtzaliyetan egizko-abeŕi-biaŕkunak zeintzuk diran esagutzeko adimen argiya eta maiŕasun-gogua soŕtutzeko zoriya izan duten euzkotaŕ erbestetuak ere.

Oŕengatik soŕtu zan Barcelona'ko Euzko-Batzokija; oŕengatik Santander'kua; oŕengatik soŕtuko-da, laisteŕ Madrid'gua; oŕengatik soŕtu ziran Valladolid, Madrid eta Zaragoza'ko Euzko-Ikasle-Batza-k; oŕengatik soŕtu zan orain sei ilabete, Logroño'ko Hogar Vasco-a; eta oŕetxengatik orain soŕtu da: Araba-Eŕibera'ko eŕitxuak aurtengo udabeŕiyan euzko-goguaz piztu eta abeŕi-miñaz sutuko diŕuan Euzko-Gaztediya.

Logroño'ko Hogar Vasco-an irazi edo soŕtu da, laisteŕ, Euzkadi guziyaren begiragaŕi izango dan Euzko-Gaztediya, *eun eta beŕogei* bazkiderekin; eta bazkide geyenak, edo danak, ikasle azkaŕ-azkaŕak diranez; eta abeŕtzale sutsu-poŕokatuak, uste izatekua da beren asmo abeŕkoyak gogoz auŕera eramango dituztela; eta ziuŕ-gaude, datoŕen urte-erdi-alderako Araba'ko uritxo gustiyetan Uri-Buru-Batzaŕa'k izango diŕugula; bada, Aŕtezkari-Batza'k adiyerazi digunez, auxe da Logroño'ko Euzko-Gaztediya-ren eginkizun bereziya.

Ona emen, ain asmo abeŕkoya auŕera eramateko Batzaŕ-Nagusiya'n aukeraturik geldiŕu dan Bazkintza-Artezkari txalogaŕiya: Lendakari, Villafruela'taŕ Bitor; Lendakari-Orde, Buruaga'taŕ Jooseba; Idazkari, Aŕiaga'taŕ Agustin; Txindizai, Beitia'taŕ Joseba Koldobika; Batzaŕkidiak: Aŕtzuaga'taŕ Igone, Beŕiatua'taŕ Miren, Ariztegi'taŕ Pantzeska eta Pérez'taŕ Jasone.

Esan degunaz gañera Logroño'ko Euzko-Gastediya-k bere aretoan egingo du lan-aberkoi edeŕik. Iru Ezpatadantzari-aldra beriala gertatuko diŕu; euzkel-ikastola irazita da; itzeikizun-abeŕkoyak saŕi izango dira; Euzkadi'ko Edestiya bazkide danai edo Logroño'n dauden euzkotaŕ geyenai erakusteko bideak aŕtuko diŕu; euzko-oiŕura eta ekanduak zabalduko dira; Mendigoizale-Bazkuna irazi da, oingotxe, inguruko euzko-uriyetan oŕi abeŕkoyak zabaltzeko eta euzko-jayak egiŕeko; eta azkenik, Logroño'ko Euzko-Gaztediya-k, bere laguntza osoa eskiñiko diyo Euzkadi'tik Rioja'ra zerbait egin nairik, irabazpide bila edo zerbait emengo gauzarik erosi nairik datoŕen euzkotaŕ gustiyari. Oŕa egintza edeŕa. Jaungoikua lagun, atzeŕi ontan soŕtu zaigun euzko-gudarozte beŕi onek egingo duana gaurtik asiŕa. ¡Gure txalo bero-beroak ain asmo txalogaŕiak Euzkadi'tik at Abeŕi-gaizkakunde-aldez egiŕeko gogo-sendoa erakutsi duten Logroño'ko Euzko-Gaztediya-ko Bazkintza-Aŕtezkari eta gañeantzeko bazkide jatoŕ gustiyeri!

ARABA-RIOJA'KO ARDO BIKAÑA. Askuak dira Euzkadi'ko Batzokiya'k eta abeŕtzale esagunak "GABON-JAYAK" atsegiñez igarotzeko asmotan gure Euzkadi zoragaŕiko Araba-Rioja'ko ardo-goŕi edeŕ-bikain-bikaña eraman dutenak. On-dagiyela daneri; eta baldin besterik baldinbada urte-zaŕ urte-baŕi'tarako ardo atsegin au etxeraku nai duanik, beriala bialduko zayo, 100 litroko baŕikatxua, 45 lauŕleko'gaiŕik. Oŕa merke, Euzkadi'ko matsaren muztiyo gozo-atsegiña. Biaŕduanak eskatu bedi zuzenbide ontara: Juan de Garmendia. Carretera del Cristo, Logroño.

¡URTE-BERRI-ON! irakuŕle gustiyoi.

Zeleta.

Deun Andoni eta Mandoa

CECILY HALLACK

"Idi-Astoak ezautzen dabe
Jaube nor daben eta Jaun"—
Isaias'ek iragaŕita,
egi onek egi dirau;
ludi onen ganean, beraz,
deus baŕi danik ez dago.

Egia bera dan Jainkoari
Izadi'k jopu dagitso,
joputza onetan aldendu barik
ez apuŕtxo ez gitxitxo,
onetara erakutsiz dala
Egilean otsein zintzo.

Irazanietarik, gizona
da biotz gogoŕ bakaŕik,
Egileari joputza ukatzen
saŕi dautsona aŕokeriz,
egin ezaz zoŕ dautson gurtzik.
ez gorespen ez otoitzik.

卐 卐 卐

Ba-zan judaŕ bat aldi batean,
aŕoz esan eroyana,
ezin ebala berak sinistu
Mezatako eskutapena:
egunaro Jainko biuŕtu
ogi ta ardao baño ez dana.

Bañan—iñoan—bere mandoa,
Gure Jauntzakoa guŕtuz,
kale erdian, Oteun auŕean
belaunikotuz ba'lekus,
egiztat aŕtuko leukela.
bera guzuŕti geldituz.

"Zure eupadea neuk jasoten dot"
—Andoni'k erantzun eutsan;
ta iru egunean bere mandoa
baraurik euki ostean,
eŕi osoaren auŕera
judaŕak eban eroan.

Eskuan eban, gora jasota,
Andoni'k Eguzki-Deuna.
Judaŕak, baŕiz, oloa botaz
ziaŕdun mando auŕera:
edonok uste izan eukean
mandoan betekadea.

Bañan—o alatz aŕigaŕia!—
ez zan mandoa joan, ez,
oloa jaten, gose izan aŕen;
ta eŕiak ikus ebanez,
txuxen, Oteuna guŕtu eban
belaun bietan jaŕiez.

Belaunikotuz guŕ egin eutsan
mandoak Oteun Deunari;
ogi-antz-pean gure ikustetik
eta bai gotzonenetik,
Gure Jauna gustiz estaltzen
dauan Oteun Txit Deunari.

Belaunikotuz guŕ egin eutsan
mandoak Gure Jaunari;
Jainko ta Gizon Egiazko lez
ta eginik gure janari,
luŕean izan eban biziz
Oteunan bizi danari.

卐 卐 卐

Alatz ain andiaren indaŕez,
judaŕa kistaŕ egin zan,
ta mandoaren aldamenean
Oteun Deuna guŕtu eban.
Andoni'k mandoaz milaka
arimak ondu zituzan.

Gaŕo'taŕ Bernarta M.'k.

ingelanderatik atondurikoa.

ANTZERKI-IZPARRAK

"Antzerti" ileroko aldizkingijan artu doguzan izpaŕok jakingaŕijak dirala askorentzat uste dogu. Geure eleŕti-baŕutijan sortzen diran lora gustijak zabaldu gura geunkez.

Gure Antzerki batzaldia

Emandako epean iritxi zaizkigun antzerki-lanak abexek dira:

Bakaŕizketak:

"Artzai-mutila".
"Urteuŕena".
"Txokolo txeŕi tratalari".

Antzerkiak:

"Etxe aldaketa" (Ekitaldi bat).
"Urdintxo" (Ekitaldi bat).

"Alargun alaya" (bi ekitaldi).
"Ituŕian" (bi ekitaldi).

Kosno'ko Lukurlerua" (iru ekitaldi).
"Ama" (iru ekitaldi).
"Galartza" (iru ekitaldi).
"Arantza-Dunixi" (iru ekitaldi).

Pozik gaude idazleak ain oparo erantzun digutelako. Epai maya izendatua dago ta datoren zenbakian eman al izango degu erabakia saritutako antzerki-lan eta egileen izenekin.

Zuzendaria.

SCENARIO

Italiaŕok auŕera dijoaz gauza guztietan. Antziñako eŕo mataŕak txiki utzi nai dituzte, noski. Auŕeragi ote dijoazen batzuen batzuek diote eta gutxiena uste dedinean eilipurdi egiteko aŕiskoan...

Ez goaz ortan sartzera. Gure egitekoa antzerti-baŕutian zer nolako gauzak sortzen ari diran ikustea da. Gauza aundiak benetan.

"Scenario" dute ileroko antzerti-aldizkingia. ¿Ta nolakoa? Ez gure "Antzerti" apal, otzan eta txiro au bezela: aŕandi, eder eta ikusgaŕi baizik. Azal eta mamiz ondo ornitua. Bertau lurbira guziko teatro gora-berak dakarzki ta antzerti-gizonik ospatsuenak idazten dute.

Gure irakurle artean bat edo beste ba'lira teatro-zaletasunak eraginda "Scenario" ori ezaguta nai lutekenik zuzendu bitez:

Fratelli Treves - Editori - Palermo, 10. Milano Itali'ra. Arpidea 70 lira urtean.

X.

LIBE

Arana-Goiri adimen argi ta biotz aundiko gizona, ain eroria zegon Euzkadi jasotzeaŕen, gai guzietan lan egin beaŕean arkitu zan: izkuntza, Edesti,, Legedi, Eŕiketa ta abar Antzertia bera ere, ezin, bada, ikutu gabe utzi. Or degu, adibidez "De fuera vendrá"... ark idatzitako antzerkia. Ez da guztia. Beste lan bat ere ba-da, erdi amaitua: "Libe" melodrama edo dalako erti-langaia Bizkaiko edesti zati bati buruz asmatua.

Erdi amaitutako "Libe", ori orain Sota-Aburto Imanol'ren eskuetan dago. Onek osotu ta amaituaz geroz, antzeztutzeko eran tajutu omen du. Ez ditu esku txaŕak beŕi kutsua emateko.

Bilbo'ko Euzko-Gastedia'k laister autzeztuko duan albistia dakorkigu. Antzezkizun eder eta aberkoia izango dala eskier gaude.

Aspo.

¡Euzkerea Esituta!

Irakuŕi neban atal onetako artezkariak egiñiko oaŕa. Oaŕ oŕetatik ataraten da euzkel-atalak toki mugatua daukala egunerokо onetan. Lotsagaŕia da oaŕ oŕegaz agirian imiñi dana: euzkeraz idazten diran lan gustiak ezin leikezala argitaldu Alderdi Jeltzalearen izpaŕingian euzkereak toki mugatua daukalako.

Atzeŕietako endakoak azkatasun osoa daukearik, Ipar-Amerikan jatoŕiz bertako endakoak diranak esituta dagozan letxe, bardin-bardin ei-dago euzkerea esituta, mugatuta, ainbeste oŕialdetatik beretzako bat bakaŕik dauala.

Eta au baŕiz "a los que con gran sentimiento ignoran el idioma racial" eta ikasteko alegintzen ez diranai edeŕ egiteagaitik da, euzkeraz lan asko ekaŕita, egunerokoak kalterik izan ez dagian.

Ez da bidezkoa gauzak onelan jaŕaitzea; ez da baŕiz naikoa negaŕ egin da lengo eran iztea. Eŕietatik bialtzen diran izpaŕ, baŕi edo albistak gustientzako lain leku beaŕ da, euzkeraz irakuŕi eragiteko au lako biderik ez dagoalako. Onetarako ez dot uste oŕialdeak geituenik dagoanik, Deunen Bizitzak kenduenik bez; atal onetan gustitariko jakintzazko gayak geitu beaŕ litzakez.

Euzkeraz egiten dan eŕietatik bialtzen diran idazkiak "Información Postal" dalako atalean auŕenengo izan daitezala, eta eŕi oŕeitatik eŕderaz bialtzen diranak, euzkerazkoak lekurik izten badeutse argitaldu daitezala. Auxe eginda bakaŕik asko zabalduko litzake euzkerazko lanai izentauriko toki esitu ta mugatu ori. Au be laŕegi eskatzea dala uste dabenen abeŕtzaletasuna, "la carabina de Ambrosio", ta auntzaren gaberdiko estula bat dirala deritzat.

Beste idazleak be euren eritziak azaldu dagiezala. Baña okeŕ au zuzendu beaŕ dabenak. eritxi oŕeik ez dabezala aintzat artuko bilduŕ izatekoa dan ezkero, "Euzkel-Idazle-Batzak", be, lagundu dagiala. Euzkel-Idazle-Batzak ta idazle gustiak bat eginda gogoŕ egin beaŕ dogu, euzkeraz idazten diran idazki gustientzako leku naikoa izan daiten.

AŔIOLA.

BATZAR-DEYA

Euzko - Alderdi Jeltzalia'ren Batzar Aberko[ia]

Euzko-Alderdi Jeltzalia'ren Euzkadi-Eralguntzeak araututen da[n] 3'gn. atalgijan, 1'go. idazpurubaren bidez, Gazteiz'ko Zapata [ka]dian, 75'gn. zenbakijan, Euzko-Gastetxu-Etxia'n datorren igande illaren 31'gn. egingo dan Batzar aberkoyera dei-egiten dogu.

Abando,n, 1933'gko. lotazilla-23'gn.
Euzkadi-Buru-Batzarra

MAÑARIA

IZPAŔ-ATSEGINGAŔIJAK. — Geure aldun zintzoak, Araudiatzaz Madrid'tik bialdu dauskubezan izpaŕak ¡benetan dira atsegingaŕijak! Izpaŕ oŕeik dirala-ta, abeŕtzale gustijoen bijotzak itxaropen gozoz bete dira. Geure abeŕija, bere azkatasun doniaren zati bat lortzeko egunetan ikusten dogulako...

Oraingoan zati bat, eta gerokoan beste zati bat; eta... azkenez zati osua... Beria dan gustija... Jaunak ori gura ixan begi ba.

JUAN-ETOŔIJAK.—Gazteiz'ko ikastetxe batetik etoŕi zan Untzalu'taŕ Eŕosale emakume zintzoa.

—Bilbao'ra juan ziran Usabiaga'taŕ Miren eta Zabala'taŕ Pilipe anderak.

GEXORIK.—Egunontan gexorik aurkitzen da Bilbao'taŕ Kepe (Petra Olako) anderea Osasuna opa dautzogu.

ELIZKIXUNAK.—Igandian Pantzeskataŕ Irugaŕendaŕak ileroko Jaunartzia ta elizkixunak egin ebezan.

ARTZAÑAK.—Lengo egunetan, goiko mendijetatik amaikatxu artalde edeŕ jasten ikusi genduzan. Eduŕa goyan-beyan zala, artzañak, ardijak eta txakuŕak, gustijak iŕun-iŕun etoŕi ziran. Gitxiagorako be etzan! ¡Gixagaxuak! Udabaŕija bestelakoa dok beintzat... ¡Oi, orduko baso-aroaren gozoa...!

EDUR-KIROLAN. — Igande goxian, Bilbao'tik, neska-mutil piloak etoŕi ziran, emen-inguruan eduŕ-kiroletan ekiŕeko asmuaz; eduŕaz jolastuten. Eta... notin arein tajua ikusi ezkeroan, edozeñek uste ixango eban, eduŕtzan ebiltzazan gustijak mutil utsak zirala. Neskatilak be gixon-erara jantzita egozan eta. ¡Olakorik ikusteko be...! Ondiño, andijenak eztoguz ikusi...

GABON-JAYAK.—Ganian doguz; edo obeto esateko, etxian. Jai-oneri "sendi-jayak" eresten jake. Egun oŕetan, Josu gure Erosle maŕearen jayotzearen gomuta gozoak igiŕuta, sendikoak, sutondoko bero gozo-atsegingaŕijan maŕe-maŕero pilatzen diralako.

¡Gabon-gaba, gabaren gozoa!

MAÑARIKO.

AZPEITIA

IDI-DEMA.—Deun Toma egunez Udalak eratuta idi-dema sariketa izandu zan. Bost bikote azaldu ziran. 2.114 kiloko aŕia zan-ibili beaŕekoa. Amayeran daŕaiken eran gelditu ziran: Lenengo "Largarate" basetxekoak (12 enparantza egin zituzten) Bigaŕen: "Olalde'koak" (6 ta erdi). Irugaŕen: "Etxaiz - erdikoak". Laugaŕen: "Txokolate" eta bosgaŕen: "Egurtza".

LAISTERKETA. — "Epertzelaite" "Ituŕiaga" basetxeetako bieŕezildar [illegible] lak zezen enparantzari 100 bira [illegible] nork eman jokatu zuten. "Ituŕiaga'[k]" irabazi zun. Lau bira geyago egin[illegible] mazkila, 45'gaŕenean, "Epertzelaite" [illegible] ditu egin zan.

ARI-JOKOA. —Uŕestila'ko Aranb[illegible] Jon "Auntxa" eta Zumaŕaga'ko "Txa[illegible] fi,,'ren ariak jokatu zuten. Aranb[illegible] irabazi zun. 48 tunpada alkaŕi eman [illegible] kioten. Aspaldin ikusi dan edeŕen[a] izan zan.

Jolasketa abetara notin asko bild[u] Idi-dema ta ari-jokoa atsegingaŕi [illegible] tzaizkigun. Ez ordea lasteŕketa [illegible] la eta nork irabaziko zun zekit[illegible] bai ziran.

EZKONTZA.— Uria'taŕ Alexand[er] Mendizabal'daŕ Josebe Andone "[illegible]-azpiko" eta "Beŕesoetagoeneko" [illegible] -nezkatila laster ezkontzekoak dira. [illegible] nere zorionak ar bitzate.

GAXO. — Eŕasti'taŕ Jagoba, abe[ŕtzale] ezagunaren emaste Bereziaŕtua'taŕ M[illegible] len ikurton deunak artuta gaxorik [illegible] tzen da. Lenbailen osatu.

ANTZEŔKIA.—Luminor aretoa [illegible] biltenak eratuta, asteaŕtez il onean euzkerazko antzeŕki iai bat izango Etxabe'taŕ Miren zarauztaŕ idazle [illegible] ren iru ataldun "Itziaŕ'ko Ama" eta [illegible] bala'ren "Melitonaren bi senaŕak" atal [illegible] kaŕeko paŕeragilea antzestuko [illegible] Bostak-bostetan antzeŕkiak asiko [illegible] Sarbide saneuŕiak abetxek izango [illegible] Auŕekoak 1,25 eta atzekoak 1,00.

DABILTZATENAK. — Donostia'[tik] etoŕi da Aizpuru'taŕ Aurkene irakasle [illegible] gai eŕitaŕa.

Oñate'tik Araoz'ko "jauntxo" egu[illegible] luken Korta'taŕ Luken irakaslea.

France aldetik Zubikarai'taŕ Karmel [illegible] kide zintzoa.

Salamanca'tik Orbegozo'taŕ Iñaki [illegible] dagile-ortzlari ikasle gastea. Guziok [illegible] etoŕia damaizut, eta, Gabon-Eguaŕ [illegible] runtsuak igarotzea opa dizutet.

KIROL.

Joyería-Platería-Relojería
CONSTRUCCION Y REFORMA DE ALHAJAS
Legazpi, 10 — DONOSTIA
ARIETA BITXIZALE
Bitxitegia-Zillartegia-Gabeukaztegia
BITX'AK EGIN ETA BERRITZEN DITU
Urrutizkiña, 13-777

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Garibay, 13 bis, 2.º - DONOSTIA

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.º DONOSTIA

Irakurri EUZKADI